

# 'Auten bai', Realeko Ermuko lagunarte berria

**A**zaroaren 27an aurkeztuko da era ofizialean Realeko Ermuko lagunarte eta egun horretarako Realeko eta Ermuko futbol jokalaria ohien arteko lehia antolatu dute. 'Aurten Bai Ermuko Taldea' da lagunarte berriaren izena. Momentu honetan ia 100 realzalek osatzen dute taldea eta pixkanaka kide berriak hurbiltzea espero dute. Taldeko lehendakaria den Angel Balsera eta zuzendaritzako Sergio Corraekin izan gara.

**- Nola sortu zen Realzaleen lagunartea egiteko asmoa?**

Realak lehen mailara igotzea lortu zuenean, Ermuko zenbait realzale elkartu eta afaritxo bat antolatu genuen Lurpe Elkartearen. Javi Pérez teknikaria eta Jon Ansotegi eta Markel Bergara jokalaria han izan ziren. Ia 100 lagun elkartu ginen eta zerbait egiteko aukera ikusi genuen.

**- Zein pausu eman dituzue tarte honetan?**

Santixauetarako kamiseta batzuk atera genituen, bile-

ra ireki batzuk egin ditugu eta 'Aurten Bai Ermuko Realzaleen Taldea' sortu dugu. Orain estatutuak onartzeko zain gaude.

**- Aurkezpen ofiziala azaroaren 27an duzue...**

18.00etan hasiko da jaialdia Betiondoko futbol zelaietan. Realeko eta Ermuko jokalaria ohien arteko partidua izango da. Han izango dira besteak beste Ermuko Cofreces, Aitor Álvarez, Patxi Nieto, Uruburu, Luismi eta abar. Entrenatzaileak Manolo Álvarez eta Juanito izango dira. Realaren aldetik ez dakigu oraindik zeintzuk etorriko diren. Partidaren ondoren, lagunarteko afaria egingo dugu lagunarte bazkide eta futbol jokalarien artean.

**- Zenbat partaide ditu 'Aurten Bai' taldeak?**

Guztira 100 lagun inguru gara: 77 heldu eta 23 ume.

**- Zeintzuk dira izena emateko bete beharreko baldintzak?**

Izena emateko orduan 30 euro ordaindu behar dira eta hileroko 5 euroko kuota.



**- Baduzue egoitzarik?**

Ez, ez dugu lokalik alokatzeko asmorik. Lobianon elkartzen gara.

**- Noiz elkartzen zarete?**

Bilerak antolatzen ditugu noizbehinka eta horrez gain, Realaren partidua ikusteko Centro Gallego, Ambigú edo Gas Station tabernetan elkartzen gara. Izan ere, taldeko kide asko Realaren bazkide gara eta Anoetara joaten gara partidua ikustera.

**- Urtean zehar zein eratako ekitaldiak egiteko asmoa duzue?**

Laster lagunarteko kideentzat kamiseta batzuk

egingo ditugu eta sagardotegiren batera ateraldiren bat egiteko asmoa ere badugu. Realaren partidaren batera bidaiatxoren bat ere bada-rabilgu esku artean, baina ez daukagu ezer erabakita.

**- Besterik?**

Ermuko edozein Realzaleri guregana hurbiltzeko deia zabaldu nahi diogu. Lehendabizi gure bileretara etorri, gure giroa ikusi, gure helburuak aztertu eta taldean parte hartzeko gonbitea luzatuko diogu. Informazio gehiago nahi duenak, facebook-en dugun orrialdean jasoko du.

Asier Ibaibarriaga

Bar London  
Komentukua 2, Ermua  
Tlf: 943173312

6-16 URTEKOENTZAKO  
ARROPA!  
Zubiaurre 30 · Ermua  
943 174 576

SAGARDUI  
bolsos  
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Santiago Plaza 3, behea · ERMUA  
943 10 82 42

MUSIKA  
ESKOLA  
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

DULCE  
BEBÉ  
PEQUE'S  
0 eta 4 urte  
bitarteko  
umeentzako  
moda eta  
puerikultura  
Zubiaurre 30 · ERMUA  
943 170 005